

Gure enpresa heziketaren alorraz arduratuko den erakundea izango da, inklusibotasunari begira dagoena. Ikasleak garen heinean, hainbat gabezia ikusi izan ditugu hezkuntza mailan aniztasun funtzionala daukaten pertsonen inklusioa oztopatzen dutenak. Horren harira, gure erakundearen eginbeharra izango da hezkuntza arloko ikastetxe ezberdinei formakuntza bat ematea, eta pertsona ezberdinen beharrei erantzuteko prestatzea. Beraz, aniztasun funtzional zentsoriala, motorea eta mentala dutenentzako hezkuntza sistema inklusibo bat bultzatuko duen erakundea sortzea da gure helburua, horretarako formakuntza ezberdinak emanaz, eta bezeroari arreta eta harreman hurbila eskainiz.

Gure enpresan inklusibotasuna sustatu nahi dugu, izan ere gaur egungo gizartean ikusi dugu aniztasun funtzional zentsoriala, motorea eta intelektuala duten pertsonak beraien ikaste prozesuan beharrak dituztela. Proiektuaren helburua da eskoletako irakasle zein hezitzaileak edozein behar dituzten ikasleen beharrei erantzuteko gaitzea, inklusibotasuna lortze aldera. Argi dago inklusibotasun hori lortzea oso zaila dela, beraz saiatuko gara behintzat kolektibo hauen integrazio aldarrikatzen.

Aniztasun funtzionalaren kontzeptua oso zabala da. Pertsona guztiak desberdinak gara eta desberdinak direla oinarri hartuta, aniztasun funtzionala terminoak gizarteko kide bakoitzak gaitasun jakin batzuk eta mugak dituela adierazten du, eta gaitasun horien bazterketarik edo diskriminaziorik ez gertatzeko moduan kudeatu behar direla.

Gure proiektuarekin balio hauek goraipatu nahi ditugu:

- **Inklusiboa:** Ikastolek ikasleen aniztasunaz jabetu behar dute, eta bakoitzaren beharretara ahalik eta modu egokienean erantzun. Gure proiektuak eskola eremuan inklusibotasuna bultzatutzea helburu duenari, aniztasun funtzional zentsoriala, motorea eta intelektuala duten pertsonekin nola jokatu erakutsi behar dugu. Azken batean, hezkuntza inklusibo bat sortzea, hots, haur, gazte eta heldu guztien ikaskuntza beharrei erantzun nahi dien eredu pedagogikoa sortzen lagundu nahi dugu.
- **Pertsonalizatua:** ikastola eta eskola bakoitzaren egoera aztertuko dugu esku hartzearen planifikazioa egiterako orduan. Horretarako hainbat ezaugarri izango ditugu kontuan: ikastolaren tamaina, azpiegitura, sarrera, gela tamaina... Horretaz gain, aniztasun funtzional mota ezberdinak dituzten pertsonak kontuan hartuko ditugu. Hauetako bakoitzak behar ezberdinak dituztela kontuan harturik, emango dugun formakuntza eta honetan egingo diren dinamika ezberdinak egokituko ditugu. Ohiko formakuntza sistema erabiltzerik ez dugula nahi, hau da, gure hartzailak

(hezkuntza-sistemako profesional ezberdinak) formatzeko orduan, kontuan izango ditugu aniztasun funtzional sensorial, motore eta intelektuala dauzkaten pertsonen beharrak, eta hauek profesionaleri transmititzen saiatuko gara dinamika ezberdinen bidez. Formakuntza teorikoetatik haratago joan nahi dugu. Gainera, pertsona bakoitzak izan ahal dituen beharretan zentratuko gara eta ez era orokor batean.

- **Eskuragarria:** gure hartzaileek eta gainerako enpresa aliatuek ere (Durangaldeko Ikastolak, Urtxintxa..) gurekin kontaktatzeko erraztasuna izango dute edozein momentutan, edozein zalantza erantzuteko, emaila eta telefonoa erabili ahalko dute gurekin harremanetan jartzeko.